

azpeitian zer?

122. zenbakia

udal aldizkaria

2009ko azaroa



Boluntario bila

*Adinekoei konpainia egin eta laguntzeko
herritarrak animatu nahi ditu Udalak*



3 Inkesta

4 Zer hobetuko zenuke?

5 Zergak

6 Udal erabakiak

7 Euskara bultzatuz

8 Erreportajea

10 Urrestillako haurtzaindegia

12 Motxean

14 Antzerki Topaketak

15 Fototeka

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Paper birziklatuan egina 

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.



telefono interesgarriak

Azpeitiko Udala

Zentralita	943 15 72 00	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Ingurugiro Etxea		1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Fundazioa	943 15 17 13	2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Kontsumitzaileen		DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	N.A.N. Bulegoa	943 15 71 60	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48		
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Eguneko Zentroa	943 15 74 96			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Liburutegia	943 15 71 95	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Suhiltzaileak	112	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Igerilekua	943 81 41 21	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Polikiroldegia	943 81 30 69	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
Euskara Patronatua	943 81 45 18	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

inkesta zer dio kaleak?



Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean zer egin beharko luke Udalak?



Ane Aranburu

“Berdintasun egoera batean bizi garenaren propaganda egiteari utzi beharko lioke-tela uste dut, berdintasunera iristeko oraindik asko falta zaigulako. Horrekin batera, iruditzen zait emakumeen kontrako indarkeria kasuetan erabiltzeko prozedura bat finkatzea beharrezkoa dela eta prebentzioan eta heziketan ere gehiago egin beharko litzatekeela. Azken bi puntu horietan ahalegina egin beharko luke Udalak”.



Arroxa Borda

“Hasteko, udaletxean eta bere bueltan lanean ari diren emakumei tratatu ona eman behar lieke. Horrez gain, berez dago-kigun tokia betetzen ere utzi beharko liguke, eta ez soberan gelditzen diren tokiak eman. Hausnarketa sakon eta orokor bat ere egin beharko luke, Uda-lean gehiengoak gizonezkoa dela, eta emakumeen ikuspegia falta zaielako. Azkenik, herrian martxan dauden emakume taldeei babes eta laguntza eman beharko lieke”.



Carmen Olea

“Dagoeneko bada emakumeen kontrako indarkeriaren gaia lantzen eta jorratzen ari den talde bat, ez? Ba talde horri babes eta laguntza guztia eman beharko lioke Udalak, hasteko. Eta gero, gazteekin egin beharko luke lan: ikastetxeetan, gazteen zirkuluetan... ondo informatu eta hezteko ekimenak jarri beharko litzukete martxan, beraiengan eragiteko formulak aurkitu beharko litzukete, gazteengan baitago etorkizuna”.



Nieves Gabilondo

“Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean zigorak gogortu behar direla uste dut nik, baina beno, badakit Udalak alor horretan ez duela ezer egiterik. Hezkuntza eta informazio lana, ordea, bai, egin dezake Udalak, eta hor ahalegin berezia egin beharko lukeela uste dut: ikastetxe eta gazteen artean bai, baina baita gizonezkoen artean ere, emakumearen parekidetasunak eurei, gizonezkoei, ez dietela ezer kentzen erakusteko”.

Proposamenak, kexak...



Zaborrak, Nuarben

Nuarben papera birziklatzeko ontzia falta dugu. Urrestilarra jaitsi behar izaten dugu papera botatzera. Gainera, zabor normala jasotzera ere oso noizean behin etortzen dira, eta edukiontziak bete-ta egoten dira.

Bizilagun bat

Oinezkotzea

Enparan kalea peatonalizatzeko, noizko Enparan dorretzeko poste mekaniko edo pneumatikoak?

Azoka plaza

Azoka plazak gutxienez igogailu bat beharko luke.

Bidegorriak babestu

Euskal Herriako bidegorriari barandilla edo zuhaitz bat jarri beharko litzaioke, errepideari oso lotuta baitago, eta arriskuak ekiditeko.

Eskaintza zabalagoa

1. Kiroldedia eta liburutegia igandeetan ere zabaldu beharko lituzkete.

Jose Ramon Arregi

2. Abuztuaren bigarren hamabostaldian kiroldegia eta igerilekuaren ordutegiak zabalduko nituzke. 09:00etatik 13:00era oso ordutegi murrizta da Azpeitia bezelako herri batentzat.

Frontoien txukuntasuna

Ezin daiteke gehiagotan garbitu Betharrameko frontoiak. Aspaldian han jolasen duten umeak arkakusoz beteta bukatzen dute.

Lourdes Urbieto

Barandila konpontzeko

Karakoletik hasi eta Arana kalera dauden barandilla horiek noiz pintatu behar dituzue? Zikinak eta herdoilak janda daude. Hainbeste jende lanik gabe eta horiek horrela edukitzea ez zait egokia iruditzen.

Miren

Kulturgunea

Iruditzen zait kulturen hutsune asko dagoela: ez daukagu zinerik, irakurle klubik... Hitzaldi, dokumental, bertso, erakusketa eta bestelakoetarako espazio bat behar da. Zer iruditzen Kafe Antzo-

ki bat? 14.000 biztanle baino gehiagoko herri bat kulturizatzeko ahalegina egin behar dugula iruditzen zait.

Eskerrik asko nire iritzia emateko aukera hau eskaintzeagatik.

Jose de Artetxe

Jose de Artetxe kaleko espaloia dela eta idazten dut, famazia eta hainbat denda dagoen aldeko espaloiaz. Espaloia oso estua geratzen da eta portaletik ateratzea edo eta bertan ibiltzeko, txanda itxoin behar da; bertan aparkatzen diren kotxeen muturrak espaloia gainean geratzen direlako. Jende asko ibiltzen den espaloia dela kontutan izanda eskatzen dut irtenbide bat bilatzea. Kotxe aparkalekuen norabidea aldatzea zer iruditzen?

Jose de Artetxeko bizilagun bat

Landeta

Landeta auzoan bidea zeharkatzeko ez dago leku egokirik. Zebra bide bat oso beharrezkoa dela uste dut, autoak abiadura handiz pasatzen baitira bertatik. Zebra bide hori, Lan Mobel aurrean edo Bordatxo aurrean jarri beharko litzateke. Nire eskaria kontuan hartuko duzue-lakoan, eskerrik asko zuen arretagatik.

Maria Lazkano



www.azpeitia.net



Sartu zaitez **www.azpeitia.net** udal webgunean

- **Tramiteak eta ordainketak** etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.
- **Udal albisteak** uneoro ezagutzeko.
- Zure **kexa, iritzi eta iradokizunak** plazaratzeko.
- Plenoetako **aktak, udal ordenantzak, hiri antolamendua-ren plan orokorra** eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.

- Herriaren inguruko **informazio erabilgarria** eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

- **Sexologia zerbitzua on-line:** hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezak on-line erantzungo ditu.

- **Udal liburutegia:** bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu udal webguneak.

www.azpeitia.net. Udala zure eskura, klik batean.

Zerga gehienak izoztea erabaki du Udalak

Egoera ekonomikoa kontuan hartuta, ezinbesteko igoerak bakarrik aplikatuko dira 2010ean



Konposta egiten duten herritarrek hobaria izango dute zaborraren tasan.

egun bizi den krisialdi egoera kontuan hartuta, orokorrean udal zerga, tasa eta prezio publikoak ez igotzea erabaki du Udaltzat, aho batez. Hala, kontribuzioa (Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga), autoen zerga (trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga), jarduera ekonomikoaren zerga, edo plusbalien zerga bere horretan mantenduko dira datorren urtean, beste hainbat tasekin batera.

Ezinbestean, halere, zaborraren, uraren eta estolderia tasak, eta Kirol Patronatuaren tarifak igo egin beharko ditu Udalak, datorren urtean ere sarrera eta gastuen arteko aldea bere horretan mantentzeko. Izan ere, lau tasa horien gastuak igo egin dira, besteak beste, Udalak zaborra eta uragatik kontsorzioei ordaindu beharrezko prezioak igo egin direlako. Igoera horiei aurre egiteko sarrerak ere igo egin behar izan ditu Udalak, esan bezala, gastuen estaldura portzentaia bere horretan mantentzeko.

Zaborraren tasaren urteko kuota 6,18 euro igoko da, eta ondorioz, urte osoan ordainduko den tasa 88,60 eurokoa izango da. Hala ere, konpostatzeko ahaleginetan dabiltzan herritarrek

hobaria izango dute, eta ez zaie igoerarik aplikatuko. Udalak ezinbestean igo behar izan du zaborraren tasa, besteak beste kontsorzioak zabor isurketagatik berari kobratzen diona %19 garestitu delako.

Uraren tasak, berriz, kontsumoaren arabera igoera izango du, progresiboa: zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta handiagoa izango da igoera. Ordaintzen den abonua kuota finkoa ez da aldatuko, kontsumitutako m³-koaren prezioa igoko da. Bestalde, estolderiaren tasa zentimo bat igoko da, metro kubikoko.

Hori horrela izanda, honakoa izango da kontsumoaren arabera igoera, hiru hilabeteko kuotan (kontuan izan herritarren %85ak 50 m³ baino gutxiago kontsumitzen dutela):

Uraren zerga igotzea ere ezinbestekoa izan da Udaltzatzat, datorren urtean Ur

Kontsorzioak, Udalak ordaintzen duen ur m³ bakoitzaren prezioari %3,95ko igoera aplikatuko baitio. Halaber, Azpiegiturak egiteko ekarpenari %14,63ko igoera aplikatuko dio.

Igoko diren azkeneko tasak Udaltzaren Kirol Patronatuaren tarifak dira. %3 igoko dira abonatuaren kuotak eta Patronatuak zuzenean eskaintzen dituen zerbitzu eta ikastaroen tarifak. Hala ere, familia ugariak hobari berriak izango dituzte. Famili ugari bateko 3 seme-alaba edo gehiago hilabete berean ikastaro batera joan izanez gero (ikastaroak desberdinak izan daitezke), adin txikiena duenaren hilabete horretako ikastaroa dohainik izango da.

Horrez gain, datorren urtetik aurrera zabor, estolderia eta uraren tasak ordaintzeko dirulaguntzak izango dira. Dirulaguntza horiek arautzen dituen Ordenantza berria egongo da eta horren arabera diru iturri txikiagoak dituzten famili unitateek udal tasa horiek ordaintzeko hobariak izango dituzte. Urte hasieran aurkeztuko da ordenantza berria, eta orduan jakinaraziko dira zehaztapenak.

Julian Eizmendi alkatearen hitzetan, "Krisialdi egoeran azpimarratzekoa da talde guztiek egindako ahalegina, bai ezinbesteko igoerako soilik egiteko, eta baita, hobariak ezarri, diru sarrera guztien dituztenak laguntzeko".

Kontsumoa- m ³	2009an	2010ean	Aldea, eurotan	Aldea %
0	28,89	28,89	0,00	0,00%
10	31,99	32,30	0,31	0,98%
30	38,18	39,13	0,94	2,47%
50	61,93	65,85	3,92	6,34%

Soreasuren bigarren fasea, onartuta

Lanak 2011ko udaberrian amaitzea aurreikusi du udalak

Soreasuko Gizarte eta Kultura eraikuntzaren bigarren faseari ekitea erabaki du Udalbatzak, urriaren 23an egindako ezohiko bileran. Erabakiarekin "gustura" agertu da Udal Gobernuak, Azpeitia eta azpeitiarrentzat onuragarria izango dela iruditzen baitzaio. Bigarren fasea amaituta Azpeitiak zinea izango du, eta antzokia ere bai, eta biak ere garrantzitsuak direla uste du Udalak, "14.500 biztanle inguruko herri batek behar duelako zinea, eta antzerkirako

tradizio handiko herriari ondo baino hobeto etorriko zaiolako antzokia".

Guzti hori kultur gune integral bat sortzeko proiektuaren barruan, zinea eta antzokiaz gain, herriko 28 kultur talderentzat tokia izango duen kultur gune integrala izango baita Soreasukoa. Kultur gune integral hori, gainera, Alde Zaharra eraberritu eta suspertzeko planaren parte da. Ildo horretan, Soreasuko gune horretan urte hasierarako 270

aparkaleku berri zabaltzea espero du Udalak.

Guztira 3.239.501 euro kostatuko da Soreasuko proiektuaren bigarren fasea. Horietatik %72 Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxak finantzatuko dute, eta %28 Udalak. Udalak 900.000 euro jarriko ditu, hiru urtean, urteko 300.000 euro. Lanak 2011ko udaberrian amaitzea aurreikusi dute.

Etxebeltz-lazarraren inguruan adostasuna

Etxebeltz-lazarrako eremu urbanistikoaren harira, honako adierazpena onartu du Udalbatzak, aho batez, urriaren 23an egindako ezohiko bileran:

Joan den irailaren 10ean idatzi bat jaso genuen Udalean bertako sustatzaileen aldetik. Bertan, 2006an Udal honek eta bertako lur jabeek sinatutako hitzarmena baliorik gabe gelditu dela argudiatuz, aipatutako hitzarmenean hartutako hainbat konpromiso bertan behera utzi nahi dituztela adierazi digute. Horien artean obrak geldituko dituztela, babes ofizialeko etxeen kalifikazioak atzera bota nahi dituztela, eta Udalari kalte ordainak eskatuko dizkiotela aipatu dizkigute. Horren aurrean Udalak honakoa esan nahi du:

1. 2006an Udalak eta eremu horretako lur-jabeek sinatutako hitzarmenak indarrean jarraitzen duela eremu horretako

baimen eta lizentzia guztiak indarrean mantentzen direlako. Hitzarmen horretan Udalak hainbat konpromiso hartu zituen, eta gaur gaurkoz Udalaren aldetik bete beharrekoa zuen eta duen konpromisoa beteko duela, hain zuzen babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan egin eta kontratazioen kudeaketa egitea.

2. Halaber, eremu horretako sustatzaileei adierazi nahi diegu hitzarmena eta lizentziak indarrean izanik, beraien konpromisoak bete dituztela, hain zuzen ere babes ofizialeko etxebizitzaren kontratazioak lehen bait lehen sinatu hitzarmenean adostutako baldintzetan (epe eta prezioak), eta bertako etxebizitzaren eraikuntza obrekin amaitzea.

azaroaren 5ean egindako Udalbatzaren ohiko bilkuran berretsi egin zen adierazpen hori, eta horrez gain, Etxebeltz-lazarra eremuaren inguruan Udalak bere konpromisoak betetzen jarraitzen duela adierazi zuen.

Hala, kontratuak sinatzeko nahia eta asmoa jakinarazi zaie promotoreei, ahal bezain pronto gauzatuak izan daitezen.

Kontratu horiek sinatzeaz gain, zozketatzeko falta diren 54 etxebizitzaren zozketa ahal bezain pronto egitea erabaki zen.

Horretarako, aurrean lehendik eginda dauden alegazioei erantzun behar zaie eta hori egindakoa zozketako eguna eta modua zehaztuko dituela adierazi zuen Udalak.

Arnasguneak ugaritzen

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azpeitiako Udalak euskararen erabilera zabaltzeko indartzeko hitzarmena aitzindaria sinatu dute.



Aranburu eta Eizmendi, akordioa sinatzen

azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundia elkarlan hitzarmen berezia sinatu dute. Euren arteko harremanetan euskara indartzea du helburu itunak, eta gizarte erabilera sustatzea ere bai, “euskarak oraindik esparru eta toki asko dituelako betetzeko”. Hala adierazi zuen Maria Jesus Aranburu Euskara Diputatuak akordioa sinatzeko azaroaren 4an egindako ekitaldian. Julian Eizmendi alkatearen arabera, hitzarmen hori euskara eta gaztelera biak maila berean erabiltzeko eskubidea bermatzeko beste urrats bat

da “eskubide formala material bihurtzeko ahalaginetan beste pauso bat”.

Bi erakundeen arteko harreman hizkuntza bakarra euskara izango da, bai langileen artekoa eta baita arduradun politikoen artekoa ere. Ildo beretik, Aldundiak Azpeitiko herritarrekin harreman zuzenak dituenean, harreman horiek euskara hutsez bideratuko ditu. Jokabide horren ondorioz herritarren batek jaso duen komunikazioaren itzulpena eskatuko balu, Azpeitiko Udala arduratuko litzateke. Modu berean, Azpeitiko Udaletik Diputazioa bidalitako euskarazko dokumentuak gaztelaniaz ere behar badira, Diputazioa arduratuko litzateke itzulpen horiez.

Hitzarmenak bost urteko iraupena izango du, eta luzatzeko modua izango da. Jarraipen batzorde bat ere jarriko da martxan, akordioaren nondik norakoak

aztertu eta baloratzeko. Akordioak betebeharrak eta obligazio batzuk ematen dizkietela nabarmendu zuen Aranburu diputatuak sinatze ekitaldian, eta herritarrek horiek jarraitu eta exijitzeko eskubidea izango dutela.

“Azpeitia euskarentzat arnasgunea da, eta arnasguneak indartzea nahi dugu”

Azpeitiko proiektua aitzindaria izango da Gipuzkoan, eta bertako emaitzen arabera, beste herri batzuetara ere aplikatuko dute akordioa. Azpeitia bertako egoera soziolinguistikoagatik aukeratu dute, “euskarentzat arnasgunea delako, eta diputazioak arnasguneak indartu eta ugaltzea nahi dugulako”. Hala azaldu zuen Aranburu diputatuak. Datorren urterako emaitza eta ondorio batzuk izatea espero dutela gaineratu zuen.



Kutxak buzoien ondoan egongo dira jarritak

Euskararen kutxak

Eskubide urraketak salatzen buzoiak jarri dira herriko hainbat gunetan

azpeitiko Udalak, UEMA eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiak elkarlanean hizkuntza eskubideen inguruko kanpaina bat jarri dute abian. Helburua da herritarrek euskaraz bizitzea eragozten dioten hizkuntza urraketak salatzea, edo gai horren inguruan dituzten galdera, iradokizun edo zorian oharrak bidaltzeko modua izatea. Horretarako, kutxa bereziak jarri dira Azpeitian, Udalaren iradokizun buzoien ondoan (udaletxe sarreran, liburutegian, igerilekuan eta kiroldegian). Salaketa, kexa, zoriontzia edo dena delakoa egin nahi duen herritarrek kutxen ondoan izango duen inprimakia bete eta bertara bota besterik ez du egin behar.

Hilean behin, fitxa horien UEMA bideratuko dira, eta honek Behatokiara eta Elebidera heleraziko ditu. Behin erantzuna dagoenean, Behatokiak eta Elebidek idatziz erantzungo dio salaketa edo gomendioa egin duen herritarrari.



Bakarrik moldatzeko moduan

Azpeitian 65 urtetik gora eduki eta bakarrik bizi direnen inguruko ikerketa egin du Udalak

baliabide sozialak erabiltzeko ohitura handirik ez dute Azpeitian 65 urtetik gora eduki eta bakarrik bizi direnek. Hala ondorioztatu du Udaleko Gizarte Zerbitzuek egindako ikerketa batek. Udaberrian egin zen ikerketa, 65 urtetik gora eduki eta bakarrik bizi diren herritarren artean, BAIGERA elkarteak bultzatuta, eta Udalarekin elkarlanean, adin horretako herritarren egoera eta premiak detektatzeko. %12,6ak ez zion galdeketa erantzurik nahi izan, adin horretako jendearen ikerketa eta inkesten aurrean duten errezeloaren seinale.

Eguneroko bizimoduan bakarrik molda-tzen direla esan dute gehienek, eta behar dutenean etxeok laguntzen dietela. Etxez-etxeko laguntza %8,4 ak soilik erabiltzen dute, eta gainerakoek zerbitzu horren beharrik ez duela adierazi dute.

Telealarmaren zerbitzua, berriz, inkestan parte hartu dutenen ia %15ak erabiltzen du, eta gehienak gustura agertu dira zerbitzuarekin. Aipatu behar da galdeketa egin zaien lagunetatik 47k

zerbitzu hori eskatu duela elkarriketa egin ostean.

Aipatutakoez gain, laguntza teknikoak, eguneko zentroa, osasun mentaleko zentroa eta egoitzan denboraldi baterako egonaldiak dira gehien erabiltzen diren baliabide sozialak.

Emakumezkoak, 75-79 urtekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoak, lehen mailako ikasketadunak, eta alargunak dira gehienak, ikerketak ateratako perfilaren arabera, eta **egoerak hala behartzen dituelako bizi dira bakarrik, eta ez eurak hala aukeratu dutelako.** Hala ere, gehien-goak familiarren laguntasuna jasotzen dute, gehien bat seme-alabena. Dena den, familiarreko horiez aparte gehiengoak ez du bestelako bisitarik jasotzen.

Osasunari eta autonomiari dagokionez, orokorrean autonomia totala edo partziala dute, eta %15,6ak soilik du dependentzia totala edo partziala.

Egoera ekonomikoa ere aztertu da, gizarte zerbitzuen ikuspegitik. Gehiengoak

badaki prestazio sozialak eta laguntza ekonomikoak dituztela, eta %16,23ak jasotzen ditu laguntza horiek. Hala ere, horietatik askok ez daki zehazki zer jasotzen duen, eta nahaste dezentea dute euren irabazien jatorriaren inguruan. Asko emakumezko alargunak dira, eta lehen diru kontuak senarrak kontrolatzen zituztela adierazi dute, eta orain, berriz, seme-alabek.

Gehiena gustura dago euren diru iturriekin, eta %72ak dio ez duela diru laguntza beharrik. Hala ere, batez beste 600 eta 900 euro bitarteko pentsioa jasotzen du, eta horrez gain 15.000 eta 30.000 euro bitarteko ondarea du. Horrek erakusten du ohiko herritarrek baino diru gutxiago jaso arren gutxiarekin bizitzen ohituta daudela.

Etxebizitza jabetzeaz dute 65 urtetik gora izan eta bakarrik bizi diren azpeitarren %85ak. Euren etxe hori egoera onekoa eta segurua dela uste dute, baina ia erdiek ez dute igogailurik, eta hori kontuan hartzeko datua da, mugikortasunerako oztopo izan baitaiteke.

Konpainia eta laguntza

Harreman sozialik ez duten adinekoei laguntzeko boluntarioak eskatu ditu Udalak eta adinekoen eragileek

denbora librea norekin konpartitu badute bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako azpeitiarren gehiengoak. Baina %25 baino gehiagok aitortu du ez duela harreman sozialik. Bakardade hori datu kezagarria iruditu zaio Udalari eta baita herrian adinekoekin lanean aritzen diren eragileei, eta horri aurre egiteko laguntza eskatu die herritarrei. Bakarrik dauden pertsona horiei konpainia egin eta laguntzeko boluntario gisa aurkeztea proposatu die. Horretarako badira herrian hainbat eragile. **“Bakoitzak duen denboraren arabera, apur bat emanda ere asko eskertuko dizute, eta ahaleginak merezi du”**. Hala adierazi dute dagoeneko adinekoekin boluntario lanetan aritzen direnek boluntarioen laguntza jaso nahi dutenek Gizarte Zerbitzuetan eskatu beharko dute.



Nagusilaneke Azpeitian dituen ordezkarietako bi.

1. Nagusilan

Egun zortzi boluntario ditu Nagusilaneke Azpeitian, gehienak emakumezkoak edo aurretik erretiroa hartutakoak. Astean behin joaten dira bakarrik bizi diren adinekoengana, euren konpainia egin, medikuarengana lagundu, edo bestelako lanak egitera. San Martin egoitzara ere joaten dira, tartean behin, bingoa eta bestelako ekintzak antolatzen. **“Ematen duzuna baino gehiago jasotzen duzu ordainetan, oso esker onekoak dira, eta benetan, betetzen zaituen ahalegina da”**. Maite Gonzaloren hitzak dira, Nagusilaneke boluntario batenak. Boluntario gehiago nahi dituzte, zenbat eta gehiago orduan eta jende gehiagorengana iritsiko direlako. **“Astean ordubete soilik da, eta ordainetan jasoko duzuna edozein soldata baino aberasgarriagoa”**. Interesatuak honako telefonoetara deitu besterik ez dute: 943 81 47 27 / 652 551 499.

2. Pastoral sanitaria

Hamabi boluntario aritzen dira egun Pastoral Sanitarian. Gisa askotako ekintzak egiten dituzte: adinekoen etxeetara joan, San Martin egoitzan daudenentzat ekimen ezberdinak antolatu, Atzegiko umeek senitartekoei babesa emateko afari-meriendak antolatu... Boluntario aritzen direnak adinean aurrera doazela eta, jende berria behar dutela adierazi dute, eta **“edozein keinu txiki”** ongi hartua izango dela. Euren harremanetan jartzeko deitu Udaleko Gizarte Zerbitzuetara edo Baigerara: 943 15 71 92.

3. Baigera

1.600 lagunek osatzen dute Baigera erretiratuen elkarteak. Ikastaroak, irteerak, jokoak... askotariko ekitaldiak egiten dituzte urte osoan zehar, eta horiek guztiak antolatu eta gauzatzeko boluntario premia handia dutela adierazi du Marije Arregik. Juntan bost lagun daude, eta guztia egitera ezin iritsita ibiltzen direla aitortu du. Horregatik, boluntario edo kolaboratzailean nahi dituzte, ordu gutxi batzuk eskaintzeko prest daudenak, **“guztion artean lana banatu eta egokiago antolatzeko”**. Herrian gero eta gehiago dira aurrez erretiroa hartzen dutenak eta horiek animatu nahi dituzte Baigerakoek, **“ideia berriak eta indar berria lortzeko”**. Alor soziala gehiago landu nahi du elkarteak, eta horretan interesa dutenak ere gustura hartuko lituzketela gaineratu dute. Interesatuak honako telefonora deitu besterik ez dute: 943 81 51 71.



Marije Arregi Baigerako lehendakaria.

Urrestillako haur eskola jaioztzeak

Otsailaren 1ean zabalduko ditu ateak, 0-2 urte arteko umeentzat



Lehenengo eskolaren egoitza berritzen ari dira haur eskola bertan ezartzeko.

Urrestilla eta inguruetako haur txikiak euren haur eskola propioa izango dute datorren otsailaren 1etik aurrera (2010). Izan ere, orduan irekiko ditu ateak Urrestillako haur eskolak, 0-2 urte arteko umeentzat zerbitzua eskainiz. Bi modulu izango ditu haur eskolak gainera, hasieran bakarrerako modua soilik egongo zela pentsatu arren, bi ateratzeko adina toki badagoela esan baitu Eusko Jaurlaritzak, eta hortaz, 20 umerentzat tokia izango baitu.

“Hamarreko kopurua iristea seinale ona litzateke”

Hala ere, abiatu, Urrestillako haur eskola modulu bakarrarekin abiatuko dela uste du Udaleko Hezkuntza Sailak, izena hamar bat lagunek emango dutela aurreikusi baitute: “Orain dauden adin horretako haurrak kontuan hartuta, hamarreko kopurua iristea seinale ona litzateke”, adierazi du Nere Aldai Hezkuntza batzordeburuak.

Etorkizunera begira, ordea, ume gehiago izatea espero du: “Kontuan izan behar da Urrestilla garapen prozesuan dagoen gune bat dela, azken urteotan etxebizitza ugari egin direla, eta gazte ugari joan dela bertara bizitzea, eta etorkizunean ere bide hori jarraituko duela aurreikusita dagoela. Hori horrela izanda, haur eskolak arrakasta izangoa duela uste dugu”.

Haur eskolaren proiektua Urrestillako herri batzordetik atera zen. Batzordeak egin zuen eskaria, eta bertako zenbait gurasok euren seme-alabak bertara eramateko konpromisoa hartu zuten. Horregatik, Udalak uste du arrakasta izango duela. Zerbitzua, gainera, Urrestillako haurrek ez ezik, Nuarbe eta Matxinbentakoek ere erabili al izango dute, eta Azpeitiko Uztaro haur eskolan plazarik gabe gelditzen direnek ere bai, beti ere Urrestillan tokia egonez gero.

“Haur eskola berriak izugarrizko bizi emango dio Urrestillari”

Hezkuntza Sailak ez du zalantzarik haur eskolak Urrestilla eta inguruko herritarren bizi kalitatea hobetuko duela: “Hezkuntza zentro batek izugarrizko bizi ematen dio auzo bati, bertan bizi eta hezteko aukera eskaintzen du, eta guztion mesederako izango dela ziur nago”, adierazi du Nerea Aldaik.

Haur eskolan izena emateko epea amaituta, abenduaren 1ean argitaratuko da onartuen behin-behineko zerrenda, eta erreklamazioak egiteko epea pasatu ondoren, abenduaren 15ean ezagutuko da zerrenda definitiboa. Hortik aurrera, otsailaren 1ean hasiko dira umeak Urrestillako haur eskolan.

Bertakoaren garrantzia

Landa eremuaren eta bertako produktuen gizarteratze kanpaina berria abian da



Igerileku aurrean eta Zelai Luzen jarri dituzte baratze publikoak.

bertako produktuek protagonismo handia hartuko dute dagoen hilabeteetan Azpeitian. Baratzeak agertuko dira herriko lorategi batzuetan, ekitaldi bereziak egingo dira azokan, sukaldaritza ikastaro eta lehiaketak antolatuko dira... Izan ere, landa eremuaren eta bertako produktuen gizarteratze eta sentibilizatzeko kanpaina sendoa abiatu dute Ingurugiro Etxea Fundazioak, Urkomek, Azpeiti eta Azkoitiko udalak, Slowfood Gipuzkoak, eta Kimu Batek. Urte osoko egitasmoa da, eta adin eta sektore guztietako herritarrengana iritsi nahi duena. Honako alor eta eremuetan egingo dira ekintza nagusiak, ikasturte osoan zehar:

1. Baratzeazaintza. Dagoeneko ezagun egin dira igerileku ondoan eta zelailuze amaieran ipinitako baratzeak. Garaian garaiko produktuekin, apaingarri

berezi bihurtu dira. Baina hori baino gehiago izateko xedearekin jaio dira baratze horiek: udaberrian hasita, lorezaintza eta baratzeazaintza uztartzeko ikastaroak egingo dira bertan. Bertako produktuak, eta garaian garaikoak landatzen ikasteko ikastaroak izango dira, ekoizpen ekologikoa landuta, baserritarren esfortzua eta lana zein den ezagutzeko. Bertako produktuez gain, lorezaintza ere landuko da, bertako lore eta espezieak modu ekologikoan lantzen ikasteko.

2. Azokak. Baratze horiek azokara begira prestatuko dira. Izan ere, azokak indartzeko ekimenak ere egingo dituzte egitasmo horrek. Azoka bereziak, sukaldari ezagunen parte hartzeak, kata komentatuak... ekintza ezberdin ugari egingo dira. Horrez gain, azoka herritarrengana gerturatzeko karpak ere erabiliko dira.

3. Sukaldaritza-Gastronomia. Urtaoroaren baitan, barazki batzuk edo besteak ekoitziko dira baratzeazaintza ikastaroetan, eta barazki horien balio erantsia handitzeko sukaldaritza ikastaroak eta katak egingo dira. Garaian garaiko barazkiak prestatzen ikasteko ikastaroak egingo dira, sormeneko sukaldaritza saioak, eta nutrizioa eta osasunaren ingurukoak ere bai.

Ikastaroetan ikasitakoa lantzeko afari tematikoak ere antolatuko dira. Slowfood mugimenduaren filosofia buruan, baratzeetan landatutako produktuak prestatuko dira, sukaldari profesional eta ikasleen artean, eta afal ondoren landa eremuaz, baserritarren egoeraz, eta bestelako gaiez ariko dira hizketan.

Ekimen horietan ikasitakoa proban jartzeko beste aukera bat eskainiko du sormeneko eta bertako produktuekin eginiko sukaldaritza lehiaketak. Errezeta lehiaketa egingo da, batetik, eta cooking jam session delakoa, bestetik. Errezeta lehiaketan parte hartu dutenek plater horiek prestatu beharko dituzte bigarren lehiaketa horretan.

Sukaldaritza eta gastronomiaren inguruan egingo diren ekimen guzti horietan herriko ostalaritza sektorea inplikatzeko saiatuko dira, ostalariak euren promozioa egiteaz gain bertako produktuen promozioa ere egin eta euren kartetan gehitzeko modua sustatuz.

4. Ikastetxeak. Ikasturte honetan Azpeitia eta Azkoitiko ikastetxeetan elikagaiak eta baliabideak landuz landuko da biodibertsitatearen gaia. Landa ingurunea ardatza izango da, eta landa inguruneoko nekazal eta abeltzain ekoizpenek duten eragina biodibertsitatean.

San Sebastianetako karroza lehiaketa

Epea azaroaren 30ean amaituko da

San Sebastian festetako karroza lehiaketan parte hartzera gonbidatzen ditu herritarrak Festetako Batzordeak. Nahi duen edonork, pertsona nahiz taldek, parte har dezake, eta lanak edozein teknika edo material erabiliz egin daitezke. Proiektuak, sortu berriak izan beharko dute, hau da, norberak sortutakoak. Karrozaren neurriak: 2,80m zabalera x 3,85m luzera eta 3,20m altuera. Lanak sinatu gabe aurkeztu beharko dira eta aparteko gutunazal batean egilearen datuak zehaztuko dira. Aurreproiektuak aurkezteko epea azaroaren 30an amaitzen da, eta epaimahaiak erabakia emango duen eguna modu egokian jakinaraziko da. Interesatuak udaletxera bidali behar dute lana, Festa Batzordearen izenean.

Kalitatearen saria



San Martin Egoitzak ISO 9001 ziurtagiria jaso du

Kalitatearen ISO 9001 ziurtagiria jaso du San Martin egoitzak, eskaintzen duen zerbitzuaren mailaren adierazle. Lazko ekainean hartu zuen Udalak ziurtagiri hori lortzeko erabakia, eta Bureau Veritas enpresari agindu zion lana. Azaro hasieran iritsi da lan horren emaitza. Aspalditik datoz San Martin egoitza berritzeko ahaleginak, eta orain urtebete amaitu ziren egoitza handitu eta berritzeko lanak. Kanpoaldeko lorategia berritzeko lanak ere amaitzeaz dira, eta datorren urtean laugarren solairua egokitzeko lanak egingo dira, 2010ean bertan bost plaza berri kontzertatzeko, eta 2011an beste bost.

Aristiri eta Angel argazki etxeari zorionak



Espainiako sari bana jaso dute pilotuak eta argazkilariak

Azpeitiko Udalak Antonio Aristi Urrestillako pilotua eta Angel Argazki etxea zoriondu nahi ditu. Aristik Espainiako Iraupen proba irabazi du, bere taldekide Harriet Arruabarrenarekin batera. Ugariak izan dira pilotuak azken urteetan lortutako garaipenak, eta automobilismo mundua ibilbide sendoa eraikitzen ari da.

Angel argazki etxeak, berriz, Espainiako argazki profesionalen Esquinero de Oro saria irabazi du, eta horri esker Federazio horrek urtero argitaratzen duen argazki bilduman sartuko dute bere lana.

Bai Aristik eta bai Angel argazkiek Azpeitia eta Urrestillaren izena bertako mugetatik kanpo hedatzeko egiten duen lana txalotu nahi du Udalak.

8.000 euro Caritasi



Udalak Zezenzale Batzordearen lana eskertu eta zoriondu du

azpeitiko Zezenzale Batzordeak 8.000 euro eman dizkio Caritasi, San Inazio jaietako zezenketetan ateratako dirua, hain justu. Dohaintza hori egiteagatik eskerrak eman dizkio elkar-teari Julian Eizmendi alkateak, "krisi garaian ere gehien behar dute-nei laguntzeko erabakia hartu dutelako, elkartasun baloreak indartu eta gizarteratuz". Horrez gain, Zezenzale Batzordeak Azpeitia eta azpeitiarren izena zabaltzeko egiten duten lana ere goraiatu du alkateak, eta euren espamutik Azpeitia eta azpeitarentzat lan asko egiten dutela nabarmendu. Caritasi dirua entregatzeko ekitaldian egin zituen adierazpenok Julian Eizmendi alkateak.

IV. Ardo dastaketa eguna, azaroaren 21ean



Aurtengo ekimena Egunkariaren alde izango da

azaroaren 21ean egingo da Azpeitiko IV. Ardo dastaketa eguna. 35 upategitik gora etorriko dira bertara, euren ardo onenak dastatzeko aukera eskainiz. 11:30etik 14:30era izango da dastaketa, herriko plazan, eta ardoa probatzeaz gain, bertako gazta, Gernikako piperrak eta beste hainbat pintxo jateko aukera ere izango da. Giroa alaitzeko, berriz, trikiti soinuak etengabe entzuteko modua izango da, goiz osoan zehar plazan ibiliko baitira lzer eta Alabier trikitilariak. Aurtengo ardo dastaketa Egunkariaren alde izango da, eta kazeta horretako arduradunen epaiketa ate joka dela eta, epaiketa ordaintzeko bonoak eta kamisetak erosteko aukera egongo da plazan bertan.

Esperientziatik ikastera



30 ikaslerekin abiatu da esperientzia tailerraren ikasturtea

esperientzia tailerrak inauguratu du ikasturte berria, 30 ikaslerekin. Ekonomia, Gipuzkoaren historia, musikaren historia, eta gorputz espresioa gisako ikasgaiak emango dituzte aurtengo ikasturtean, eta egingo duten proiektuaren gaia ere erabakia dute jada: belaunaldi arteko solasaldiak. Klaseak ostegun arratsaldetan izango dira: 16:30etik 18:30era, Baigeran, eta ikasturte amaieran diploma bat jasoko dute ikasle guztiek. Mugabe elkar-teak antolatzen du esperientzia tailerra, 50 urte ingurutik hasi eta gorako nahi duen herritar ororentzat. Udalak eta Baigera erretiratu-en elkar-tekoek sustatzen dute ekimena.

Topaketen topa

Estreinaldiz eta sariz beteriko asteburua dator antzerki topaketetan



XXVII. antzerki topaketek egin dituen erditik aurrerako bidea. Jende ugari hartu du parte orain arteko ikuskizun eta ekintzetan, eta izandako harrerarekin gustura dago Udala. Baina oraindik une ikusgarriak igarotzeko dituzte topaketek: datorren asteburua (azaroak 20tik 22ra), esaterako, estreinaldiz eta sariz beteta dator.

Azpeitiarrak izango dira, protagonista, gainera, une horietan. Larunbatean, esaterako, Imanol Elias herritarrari aurtengo Txalo Saria emango diote. Urteetan antzezle, zuzendari, egile, herriko antzerki giroaren partehartzaile, testigu eta sustatzaile gisa egindako lan guztia eskertzeko emango diote saria, 13:00etan, Udal Areto Nagusian. Ondoren, Erika eta Aneren antzerkitxoaz gozatzeko aukera ere izango da.

Azpeitiko Lakrikun Antzerki Taldea

Prest gaude!



eta algara ez dira faltako, 19:00etatik aurrera, pilotalekuan.



Emakumeen Antzerki Taldea.

Azpeitiko antzerkiaraz gain, Euskal Herri osoko lanak ikusteko aukera ere ez da faltako, gainera, hilaren 29ra bitartean. Emakumeen aurkako indarkeriaren egunaren harira, esaterako, POK produkzioak-en Arrainontzia lana ikusgai izango da azaroaren 28an.



ANTZERKI AMATEURRARI ZUZENDURIKO ASTEBURUA

20, ostirala

"110 STREETEN GELTOKIA"
GOAZ Antzerki Taldea
21:30ean, larunbat pilotalekuan

21, larunbata

TOPAKETEN
TXALO SARIA
IMANOL ELIAS ODRIOLAZARI
13:00etan, Udal Areto Nagusian

21, larunbata

ESTREINALDIA
"PREST GAUDE"
LAKRIKUN
21:30ean, larunbat pilotalekuan

22, igandea

"AUTOBUSAREN ZAIN"
EMAKUMEEN ANTZERKI TALDEA
19:00etan, larunbat pilotalekuan

27, ostirala

"NI NAIZ HECTOR NI BAKARRIK"
TXALO
21:30ean, larunbat pilotalekuan

28, larunbata

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
"ARRAINONTZIA"
POK PRODUKZIOAK
21:30ean, larunbat pilotalekuan

29, igandea

TXKO 4 HANDEKIZAT
"JOLAS eta ZILARRIZKO TXARTILA"
JAKIN eta JOLAS
18:00etan, larunbat pilotalekuan

Larunbatean bertan ere, baina iluntzean, azpeitiarrak izango dira topaketetako lehen estreinaldian. Lakrikun taldeak *Prest gaude!* lana aurkeztuko dute, aurreneko aldiz, taula gainean. Gurutze Eizmendi, Alaitz Olaizola eta Idoia Uranga greban egon dira denbora luzez, eta euren helburuak bete ez dituztenez, orain prest omen daude bigarren ahalegin bat egiteko. Azalpen hori eman dute hiru antzezleek lan honen sarrera egiteko. Zer lortzen duten ikusteko Izarraitz pilotalekura agertu besterik ez dago, 21:30ean.

Eta igandean ere azpeitiarrak hartuko dute Izarraitz pilotalekuko oholtza. Emakumeen Antzerki Taldeak *Autobusaren zain II* lana taularatuko du, 80ko hamarkadako hamar emakumeren bizipen, kezka eta kexak agerian utziaz. Umorea

Asko dago, beraz, oraindik, ikusteko eta gozatzeko. Udaleko Kultura sailak antzerki topaketez gozatzeko jarraitzera animatu nahi ditu herritar guztiak, egun euskaraz egiten den antzerkirik onena herrian bertan ezagutzeko parada ezin hobe delako. Bi asteburu daude, oraindik horretarako. Ez galdu aukera.



Nolakoa zen garai bateko Azpeitia?

Galdera horri erantzun nahi dio Azpeitiko Argazki Elkarteak. Azpeitia eta inguruak islatzen dituen argazki zaharrak bildu nahi ditu, herriko fototeka egiteko. Jada ari da lan horretan, baina datorren urtean Azpeitiari herri gutuna eman ziotela 700 urte beteko direla kontuan hartuta, ahalegin berezia egin nahi du.

horretarako zuen laguntza behar du, ordea. Etxean dituzuen argazki bildumetan begiratu besterik ez duzue egin behar: dituzuen argazki zahar zein berriak onartuko dira, eta baita negatiboak eta klitxeak ere.

Udaleko Kultura sailean jasoko dituzte argazkiak, eta bertan

klasifikatu. Argazki guztiak behar bezala zainduko dira, eta bere jabeari itzuliko zaizkio. Bulegoa 09:00etatik 15:00etara egongo da zabalik, udaletxeko hirugarren solairuan.

Hartu ezazu parte herriko kultur ondarea berreskuratzen. Azpeitiaren historiaren zati bat berreskuratzen ere lagunduko duzu.



• **Noiz ateratako argazkia?** Ez daki noiz ateratakoa den; XX. mende haserakoa dela dirudi.

• **Egilea:** Ezezaguna.

• **Nork utzia:** Kontxi AZPIAZU GOMEZ "INDOKU-ak" utzi dio Argazki Elkarteari.

• **Gunea:** Enparantzako kioskotik ateratako argazkia da. Eguerdia da.

• **Pertsonaiak:**

- Sokamutilak aurretik datoz; ezkerrekoak testigua darama eskuan eta hainbat sokamutil datoz zezenaren aurretik, zein oraindik ez den sartu enparantzian.

- Jente ugari plazan bertan bluxa ugariz jantzitakoak ikus daitezke. Eskuinaldean, goian "El Banco de San Sebastian" balkoian sei emakume daude.

- Sarraileko Dolores jostunak arropa denda zuen, gero zapategia, Eperra taberna, gaur Oñatz denaren tokia agertzen da aurrean.

- Balkoi guztiak emakumez eta umez josita daude.

- Sanagustinpean periodiko postua ageri da, bertara bi emakume sartzen ari dira zezena Erdikaletik datorrela ikusi orduko.

Ikasleak maixuarekin: (erreprodukzioa da ez da argazki originala). Erreprodukzioa Donostiako AYALA argazkilariak erreproduzitutakoa da, 1967ko martxoaren 8an.

• **Noiz?** Argazki originala ez daki noiz ateratakoa den.

• **Egilea:** Ezezaguna.

• **Nork utzia:** Kontxi AZPIAZU GOMEZ "INDOKU-ak" utzi dio Argazki Elkarteari.

• **Gunea:** Udaletxeko goiko eskolan.


• **Pertsonaiak:**

- Maixua, D. Timoteo GOMEZ. Ikasleak denak mutilak dira; bi neskatxoak maixuaren alabak dira.

- Goian ezkerretik hasita seigarrena, Jexux AZPIAZU "Axi".



agenda azaroa



AZAROA

2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23/30	24	25	26	27	28	29

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIARI EZ



20, ostirala

ZINE KLUBA

Filmea : STILL WALKING

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 21:30

HELDUEN ANTZERKIA GOAZ ANTZERKI TALDEA

"I 10. Streeteko Geltokia"

IZARRAITZ PILOTALEKUAN

Gaueko 21:30etan

KONTZERTUA

Orkatx Kultur Elkarrekin antolatutako

Ordua: 22:00etatik 24:00etara

Lekua: Orkatx tabernan

21. larunbata

IVARDO DASTAKETA EGUNA

Lekua: Enparantza Nagusia

Ordua: Goizeko 11:30etatik-14:30era

ANTZERKI TOPAKETAK

TXALO SARIA

IMANOL ELIASi

Udal Aretoa Nagusia

13:00etan

ERIKA ETA ANEren antzerkitxoa

Opari banaketa

AZPEITIKO

MUSIKA BANDA

18.00 Pasakalle

Ekintza: San Zetilia ospatzeko

Kontzertua

Ordua: 19:00

Lekua: Udaletxeko Arkupetan

Gero: afaria

ESTRENALDIA

LAKRIKUN

"Prest Gaude"

IZARRAITZ PILOTALEKUAN

Gaueko 21:30etan

22, igandea

Ordua: 12:30

EMAKUMEAREN

ANTZERKI TAILERRA

"Autobusaren zain"

IZARRAITZ PILOTALEKUAN

Arratsaldeko 19:00etan

23, astelehena

IPUIN KONTALARIA

Ekintza: Pello Añorga

Zuzendua: HH 4-5 (4-5 urte)

Lekua: Udal Liburutegia

Ordua: 18:00etan

25, asteazkena

EMAKUMEEN INDARKERIAREN EGUNA

BILGUNE FEMINISTAK ANTOLATURIK

Ekintza: Zinema- VOCES filmea

Ordua: 21:00

Lekua: Betharram Aretoa

27, ostirala

HELDUEN EMANALDIA

TXALO

"Ni naiz Hector ni bakarrik"

IZARRAITZ PILOTALEKUAN

Gaueko 21:30etan

28, larunbata

HELDUEN ANTZERKIA

Emakumeen aurkako indarkeria

POK PRODUKZIOAK

"Arrainontzia"

IZARRAITZ PILOTALEKUAN

Gaueko 21:30etan

29, igandea

TXIKI + HANDIENTZAT

AMAIERAKO JAIA

ANTZERKIA

JAKIN eta JOLAS

"Jolas eta Zilarrezko Txartela"

IZARRAITZ PILOTALEKUA

Arratsaldeko 18:00etan

botikaxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Azaroaren 21, 22, eta 25ean, eta abenduaren 1, 7, 18, 25 eta 29an.

ARANBURU. Enparantza nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Azaroaren 23, 28 eta 29an, eta abenduaren 4, 10, 16 eta 21ean.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49

Azaroaren 24, eta 30ean, eta abenduaren 5, 6, 11, 17, 22 eta 31n.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Azaroaren 20 eta 26an, eta abenduaren 2, 8, 14, 19, 20, 23 eta 28an.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Azaroaren 19 eta 27an, eta abenduaren 3, 9, 12, 13, 15, 24, 26 eta 27an.

